



**JOSÉ MANAUT**  
**KARTZELA ETA ERBESTEA DURANGON**  
**CÁRCEL Y DESTIERRO EN DURANGO**

2019.09.19 > 2019.10.28



ARTE ETA HISTORIA MUSEOA /  
MUSEO DE ARTE E HISTORIA

<b>Erakusketa / Exposición</b>	JOSÉ MANAUT. KARTZELA ETA ERBESTEA DURANGON CÁRCEL Y DESTIERRO EN DURANGO
<b>Argitalpena / Edición</b>	DURANGOKO ARTE ETA HISTORIA MUSEOA MUSEO DE ARTE E HISTORIA DE DURANGO
<b>Testua / Textos</b>	UNIVERSIDAD CARLOS III DURANGOKO ARTE ETA HISTORIA MUSEOA
<b>Argazkiak / Fotos</b>	ARCHIVO JOSÉ MANAUT (UNIVERSIDAD CARLOS III), DURANGOKO ARTE ETA HISTORIA MUSEOA
<b>Inprimaketa / Impresión</b>	EPS IMPRESIÓN
<b>Lege Gordailua / Depósito Legal</b>	VI-788/ 2019

Azala / Portada  
**«Santa María»**  
 Oleoa mihise gainean / Óleo sobre lienzo

## JOSÉ MANAUT VIGLIETTI

## JOSÉ MANAUT VIGLIETTI



### BIOGRAFIA

**Jose Manaut 1898an jaio zen, Lirian (Valentzia), artearen eta kulturaren gainean sentikortasun handia zuen familia batean. Valentziako San Carloseko Arte Ederren Eskolan ikasi zuen, eta, ondoren, Sorollarren dizipulua izan zen Madril.**

**1922an, Madrilgo Pintura, Eskultura, eta Grabatuen Eskola Bereziko ikaslea zela, Paisajisten Egoitza nazionalen hartu zuen pentsioa, El Paularreko Monasterioan, eta, geroago,**

### BIOGRAFÍA

Jose Manaut nació en Liria, Valencia, en el seno de una familia de gran sensibilidad artística y cultural. Estudió en la Escuela de Bellas Artes de San Carlos de Valencia y, más tarde, fue discípulo de Sorolla en Madrid.

Alumno de la Escuela Especial de Pintura, Escultura y Grabado de Madrid, en 1922 fue pensionado en la Residencia nacional de Paisajistas, en el Monasterio de El Paular, y a continuación en la

Instrukzio Publikoko Ministerioko Ikasketak Zabaltzeko Batzarrean. Azken horrek beka bat eman zion inpresionismoari buruzko ezagutzak hedatzeko Frantzia, Belgika eta Herbeheretan. Frantzia bizi izan zen 1927ra arte, eta erakusketak egin zituen Parisko hainbat aretotan.

Itzultzean, Madrilera joan zen. Manuel Bartolomé Cossío-k sustatu zuen Liga Laica delakoan sartu zen, eta bazkide bihurtu zen Madrilgo Arte Ederren Zirkulu eta Ateneoan. Halaber, Masonerian ere sartu zen, eta Ezkerra Republicana alderdia sortzen parte hartu zuen. Jarduera horien ondorioz, garaiko pertsonai garrantzitsuenekin ezarri zituen harremanak, besteak beste Manuel Azaña, Marcelino Domingo, edo Santiago Ramón y Cajalekin.

Era berean, marrazketaren irakaskuntzan murgildu zen betebetan; Marrazketako Irakasle Titularren Elkarteak sortu eta haren buru izan zen, eta irakasle-lanetan aritu zen Espainiako hainbat hiritan (Tortosa, Ronda, Valentzia). Horrez gain, herriko bizitza kulturalen inplikatu zen.

Idea horien balioa agerian geratu zen, halaber, militarren altxamenduaren ostean eta marrazketa-katedra eskuratu ondoren, Valentzian irakasle-lanpostu batera sartzeko eskatu zuenean. Bertan bizi zen, hain zuzen ere, bere familia. Halaber, Instrukzio Publikoko Ministerioaren proiektuetara ere batu zen, hiriko analfabetismoaren kontra eta bizitza kulturalaren alde borrokatzeko. Une hartan, Bigarren Errepublikako hiriburua zen Valentzia.

Junta para Ampliación de Estudios del Ministerio de Instrucción Pública que le concedió una beca para ampliar sus conocimientos sobre el impresionismo en Francia, Bélgica y Holanda. Residió hasta 1927 en Francia, donde realizó exposiciones en varios salones de París.

A su regreso se establece en Madrid, ingresa en la Liga Laica que impulsó Manuel Bartolomé Cossío, e ingresa como socio del Ateneo y del Círculo de Bellas Artes de Madrid. También ingresó en la Masonería y participó en la fundación del partido Izquierda Republicana. Estas actividades le llevaron a relacionarse con importantes personajes de la época como Manuel Azaña, Marcelino Domingo, o Santiago Ramón y Cajal.

Paralelamente se vuelca en el ámbito de la enseñanza del dibujo; crea y preside la Asociación de Profesores Titulares de Dibujo e inicia su actividad como docente en diferentes ciudades españolas (Tortosa, Ronda, Valencia), donde se implica en la vida cultural de la localidad.

El valor de estos ideales queda de manifiesto cuando, producida la sublevación militar y tras obtener la cátedra de dibujo, solicita incorporarse a un puesto docente en Valencia, donde vivía su familia. Se vincula además a los proyectos del Ministerio de Instrucción Pública para luchar contra el analfabetismo y a la vida cultural de la ciudad, convertida en capital de la Segunda República.



**«Manuel Azaña»**  
Sangina / Sanguina



«Uno que hace algo y otro que mira»  
Ikatz-ziria / Carboncillo



«Séptima galería, mi celda»  
Ikatz-ziria / Carboncillo

## KARTZELA

Gerra Zibilaren amaieran, Francoren erregimenak ezarritako garbiketaren ondorioz, Manaut bezalako artista eta aktibistak espetxeratu egin zituzten. Auzitegi Bereziak Masoneriaren Errepresioagatik eta Komunismoagatik kondenatu zuen espetxean hamabi urte eta egun bat egotera; ondoren, zigorra konmutatu zitzaion: Durango egon zen konfinatuta 6 urte eta egun bat, bere familiarengandik bananduta. Halaber, Porlier eta Carabancheleko kartzeletan erreklutatuta eman zituen hilabete batzuk 1943 eta 1944 artean. Garai horien lekuko dira ezkutuan gorde ziren "kartzela" marrazki ugari. Carabancheleko kartzelan milaka preso errepublikar pilatzen ziren eta, bertan, zentroko zuzendariaren baimena lortu zuen, marraztu eta margotu ahal izateko, Porlierreko espetxean aurretik ere egin zuen bezala. Ezkutuan jarraituko zuen preso errepublikarren eguneroko bizitzari buruzko oharrik marrazten. Marrazkiok kontu handiz gordetzen zituen zaindariaren begietatik urrun, eta bere emazteak ezkutuan ateratzen zituen espetxetik, arropa zikinaren artean. Marrazki horiek, urte asko geroago, gerra osteko presoan bizimoduari buruzko agiri grafiko adierazgarrienetakoa bihurtuko ziren. Horietako batzuk eta preso errepublikar batzuen erretratuak lagin honetan ikusi ahal izango dira.

## CÁRCEL

Al final de la Guerra Civil, la depuración impuesta por el régimen de Franco hizo que artistas y activistas como Manaut fueran encarcelados. Fue condenado por el Tribunal Especial por la Represión de la Masonería y el Comunismo a doce años y un día de prisión; pena que le sería conmutada después a 6 años y 1 día de confinamiento en Durango, separado de su familia. Vivió meses de reclusión en las cárceles madrileñas de Porlier y Carabanchel entre 1943 y 1944, de los que quedan como testimonio abundantes dibujos "carcelarios" que se conservaron clandestinamente. En la cárcel de Carabanchel, donde se hacinaban miles de presos republicanos, consiguió la autorización de la dirección del centro para poder dibujar y pintar tal como lo había hecho con anterioridad en la prisión de Porlier. Prosiguió dibujando a escondidas apuntes sobre la vida diaria de los presos republicanos, que ocultaba celosamente a la vista de los guardianes y su mujer lograba sacar ocultos con la ropa sucia de la prisión. Estos dibujos se convertirían muchos años después en uno de los documentos gráficos más elocuentes de la vida de los presos de la postguerra. Algunos de los cuales están expuestos en esta muestra, así como retratos de algunos de los presos republicanos.

## ERBESTEA

12 urteko zigorraren ordeztu sei urte eta egun bat egin zituen, Durangoko erbestea tartean. Kondenatu bat espetxetik ateratzean, gizarte zibilean baztertua geratzen zen, Erantzukizun Politikoei buruzko 1939ko otsaileko Legean ezarritako irizpideen arabera. Erbesteratzeak nahitaez lekualdatu beharra eragiten zuen, hau da, urte batzuetarako baino ez izan arren, familia, lagun eta lankideetatik urrundu beharra. Manaut Durangon erbesteratu zuten 1944ko abuztuaren 5etik 1945eko irailaren 2ra. Orduantxe itzuli ahal izan zen Madrilera, bere familiarekin. Durangon egon zen aldian, bere inguruko ikuspegiak eta paisaiak margotzen biziraun behar izan zuen, bere artea eskainiz ia atez ate. Bizkaiko hiribilduan, ordea, ez zuen lana aurkitzeko orduan arrakastarik izan; halaxe deskribatzen du, zehatz-mehatz, lagin honetan ikus daitekeen bere egunerokoan: Diario de un confinado (Konfinatu baten egunerokoa) izenekoan. Hiribilduan egon zen aldian, inguruko paisaiak marraztu zituen, bai eta bertako jende edo pertsonai garrantzitsuen erretratuak egin ere, tartean Fray Juan de Zumárraga eta Bruno Mauricio Zabalarenak. Horiek guztiak daude ikusgai gure erakusketan.

## DESTIERRO

La pena de 12 años fue conmutada por otra de seis años y un día con confinamiento en Durango. La excarcelación de un condenado implicaba la exclusión de la sociedad civil, según los criterios establecidos en la Ley de Responsabilidades Políticas de febrero de 1939. El destierro implicaba traslado forzoso, aunque fuera por unos pocos años, al margen del núcleo familiar, de amigos y de compañeros de trabajo. Manaut estuvo desterrado en Durango desde el 5 de agosto de 1944 hasta el 2 de septiembre de 1945, cuando pudo volver a Madrid junto con su familia. Durante el periodo que pasó en Durango tuvo que subsistir pintando vistas y paisajes de su entorno y ofreciendo su arte casi de puerta en puerta. Su búsqueda infructuosa de trabajo en la villa vizcaína queda descrita de forma detallada en su Diario de un confinado que se expone en la muestra. A lo largo de su estancia en la villa realizó varios paisajes de la zona, así como retratos de su gente o de personajes ilustres como en el caso de Fray Juan de Zumárraga y Bruno Mauricio Zabala. Casos, todos ellos, que forman parte de nuestra exposición.






«Pinondo»  
Olea mihise gainean / Óleo sobre lienzo



«Misa en Durango»  
Aquarela / Acuarela



«Pórtico de Santa María»  
Óleo sobre lienzo

## 1970EKO ERAKUSKETA

1970eko urriaren 9an, José Manaut Vigliettiri eskainitako erakusketa inauguratu zen Ezkurdiko Kulturako Udal Aretoetan. Bertan, Valentziako margolariak erbestean egon zen garaian margotu zituen eta bilduma pribatuetan gordeta zeuden lanetako batzuk egon ziren ikusgai. Margolariak, hala ere, ezin izan zuen hitzordu horretara bertaratu, osasun-arazoak zirela eta. Edonola ere, antolatzaileei esker ona adierazteko gutuna bidali zien. Bertan kontatu zuenez, nahiz eta Durangon egin zituen lehen egunak zailak izan, bera durangar sentitzen zen: «niretzat Durango bigarren aberri txiki bat bihurtu da».

José Manaut 1971ko urtarrilen hil zen, Madrilen.

## EXPOSICIÓN DE 1970

El 9 de octubre de 1970 se inauguraba en las Salas Municipales de Cultura de Ezkurdi, una exposición dedicada a José Manaut Viglietti donde se recogieron algunas de las obras del pintor valenciano que pintó en su época de destierro y que se encontraban en colecciones privadas. El pintor no pudo acudir a la cita por problemas de salud, pero mandó una carta de agradecimiento a los organizadores, donde cuenta que aunque los primeros días en Durango fueron difíciles, él se sentía durangués «Durango a llegado a ser para mí como una segunda patria chica».

José Manaut falleció en enero de 1971 en Madrid.



Manaut Durangon margotzen Manaut pintando en Durango



«Arco de Santa Ana»  
Oleoa mihise gainean  
Óleo sobre lienzo

# JOSÉ MANAUT

## KARTZELA ETA ERBESTEA DURANGON

### CÁRCEL Y DESTIERRO EN DURANGO

Irailaren 19tik urriaren 27ra  
Del 19 de septiembre al 27 de octubre

#### Ordutegia / Horario

Asteartetik ostiralera De martes a viernes	Larunbatak Sábados	Igandeak eta jai egunak Domingos y festivos
10:00-13:00 17:00-20:00	11:00-14:00 17:00-20:00	11:00 - 14:00

ARTE eta  
HISTORIA  
MUSEOA  
DURANGOKO UDALA



MUSEO  
de ARTE e  
HISTORIA  
AYTO. de DURANGO

  
**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Palacio Etxezarreta Jauregia  
San Agustinalde, 16. 48200 DURANGO  
94 603 00 20  
museo@durango.eus

